



Kabia

2024-2027
Berdintasan plana
KABIA



| Helburua | Ekintzak |
|---|--|
| KABIAko estrategian berdintasunaren eta diskriminazio ezaren aldeko konpromisoa ezagutzera eman. | Diagnostikoaren eta berdintasun-planaren berri eman langile guztiei. Harrera-gidan genero-ikuspegia kontuan hartu. Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa txertatzea erakundearen politiketan. |
| Berdintasun Planean hartutako konpromisoen %100 betetzen dela bermatzea | Berdintasun Planaren helburuen betetze-mailaren tarteko ebaluazioa egitea. 2024-2027 Berdintasun Planaren betetze-mailaren emaitzak jakinaraztea Berdintasun batzordeari. Berdintasun Planaren helburuen betetze-maila ebaluatzea haren indarraldia amaitzean, langileen parte-hartzea sustatuz. |
| KABIAk emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko duen inplikazioa eta konpromisoa erabiltzaileei eta beren senideei, eta bide batez, langileei, helaraztea. | Gutxienez 2 sentsibilizazio-kanpaina/komunikazio egitea aukera-berdintasunarekin lotutako gaiei buruz, erreferentziazko egun oroigarrietan: <ul style="list-style-type: none">• Martxoaren 8a (emakumearen eguna);• Azaroaren 25a (emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna) |
| KABIAko langile guztiek berdintasunaren alorrean ematen duten prestakuntza gehitzea. | Erakundearen prestakuntza planean, berdintasunaren alorreko ekintza espezifikoak txertatu. |
| KABIAren barneko zein kanpoko komunikazioek hizkuntza eta irudi inklusiboa sustatzen duela ziurtatzea. | Hizkuntza inklusiboaren gida ezagutaraztea |
| Kontratazioan berdintasuna kontuan hartzea | Kontratazio arloko deialdietan, berdintasun-arloko klausula espezifikoak txertatu. |

BERDINTASUN PLANA - 2. PERTSONEN KUDEAKETA

| Helburua | Ekintzak |
|---|---|
| Hautaketa-iragarkietan hizkuntzaren erabilera ez-sexista erabiltzen dela bermatzea | Hautaketa-iragarkietan hizkuntzaren erabilera ez-sexista erabiltzen dela bermatzeko eta lanpostuen definizioan lan-eskaintza sexu bati edo besteari zuzendua dagoela aditzera ematen ez dela bermatzeko prozedura bat idaztea. Hau da, lanpostuen sailkapenak edo izenak ez-sexista izan beharko du beti. |
| Berdintasunari buruzko ezagutza bermatzea | Hautaketa prozesuetako gai zerrendetan berdintasunari buruzko gaitegia sartzea. |
| Lan arriskuen Prebentzio politikan berdintasun gaia kontuan izatea | Lan Arriskuen Prebentzio politikan berdintasun gaia kontuan hartu. |

3. KONTZILIAZIOA ETA ERANTZUKIDETASUNA

| Helburua | Ekintzak |
|--|--|
| KABIAko pertsonen bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko aukerak ezagutaraztea | KABIAko lan-zentroetako harrera protokoloetan erakundeak dituen kontziliazio neurriak zein diren jaso. |

BERDINTASUN PLANA - 4. KABIA PARTE-HARTZAILE, GARDEN ETA IREKIA

| Helburua | Ekintzak |
|--|---|
| Langileek parte hartzeko eta berdintasunaren arloko gaiak eta iradokizunak jasotzeko kanal bat izatea. | Postontzi bat gaitzea Berdintasun Planarekin lotutako iradokizunak, hobekuntzak, beharrak, itxaropenak, iritziak eta balorazioak ere jaso ahal izateko. |
| Sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpena ezeztatu | Jazarpenaren aurrean jarduteko protokoloa berri ematea. Jazarpen protokoloaren inguruko prestakuntza. |

BERDINTASUN PLANA - 5. ORDAINSARI BERDINTASUNA

| Helburua | Ekintzak |
|--|--|
| Ordainsarien erregistro-orria urtero berrikustea eta egokitzea. | Soldaten erregistro-orria urtero eguneratzea. |
| 4 urtean behin, Berdintasun Planarekin batera, Ordainsari Auditoretza eguneratzea. | Ordainsari-auditoretza eguneratzea. |
| Generoaren arabera, enpresako arloetan dauden ordainsari-aldeak aztertzea. | KABIAko arlo desberdinetan generoaren arabera dauden ordainsari-aldeak aztertzea. |
| Ordainsarien gardentasunaren printzipioa bermatzea. | KABIAko soldata-erregistroaren orriaren edukia Berdintasun Batzordeari eskura jartzea. |